

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

2518

HUTS-ZUZENKETA, SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2019ko apirilaren 8ko Ebazpenarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira 2019ko «Zabaldu» laguntza programa arautzen duten oinarriak, eta beketarako deialdia egiten baita.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Aipatutakoen moduko hutsak egin dira 2019ko «Zabaldu» laguntza programa arautzen duten oinarriak onartu eta argitaratu, eta beketarako deialdia egiten duen SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2019ko apirilaren 8ko Ebazpenean (2019ko apirilaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 78. zk.). Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiteko berriro argitaratzen dira 2019ko Zabaldu programako 1., 2. eta 3. eranskinak.

ZABALDU PROGRAMA 2019**1. ERANSKINA****AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA
PONDERAZIO FAKTOREAK**

IRIZPIDEA	PONDERAZIOA
1. irizpidea: Nazioartekotze estrategia Nazioartekotze strategiaren kalitatea hartuko da aintzat, horretan agertzen baitira diru-laguntza eskatuko duten ekimenak.	40
2. irizpidea: Helburu merkatuak eta herrialdeak Eusko Jaurjaritzaren Nazioartekotze Plan Estrategikoaren lehentasunezko merkatuekin lerrokatuta egon dadila hartuko da aintzat. Amaierako puntuazioa Nazioartekotze Estrategian agertzen diren merkatu guztien arteko baliorik altuena izango da.	15
1. lehentasuna	15
2. lehentasuna	10
3. lehentasuna	5
Beste batzuk	0
3. irizpidea: Inguruarekiko eragina EAEn lanpostuak sortzea hartuko da aintzat.	15
Murritztea	0
Finkatzea edo igotzea <= 5%	7
Igotzea > 5%	15
4. irizpidea: Gizarte erantzukizuna eta jasangarritasuna Enpresak jasangarritasun, genero berdintasun, euskararen sustapen eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloetako ziurtagiriak izan ditzala hartuko da aintzat.	15
Erantzukizun sozial korporatiboaren multzoko ziurtagiriren bat izatea.	15
5. Eranskina	10
Azaldutako guztien arteko ziurtagiri 2 edo gehiago izatea. Ikusi 5. Eranskina	10
Azaldutako guztien arteko ziurtagiri 1 izatea. Ikusi 5. Eranskina	5
5. irizpidea: Enpresen arteko lankidetzak Lankidetzak modalitatea hartuko da aintzat.	15
Esportazio partzuergoa	15
Salmenta taldea, klusterra, elkarte edo partaidetza Basque Trade & Investment (Nazioartekotzerako Euskal Agentzia) lizitazio-plataforman	10
	100

2. ERANSKINA

LEHENTASUNEZKO MERKATUAK
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEKO EUSKO JAURLARITZAREN PLAN
ESTRATEGIKOA (2017-2020)

Herrialdeak	Herrialdeak
1. lehentasuna	Alemania
	Italia
	Erresuma Batua
	Txina
	Mexiko
	Estatu Batuak
2. lehentasuna	Frantzia
	Kolonbia
	Brasil
	Errusia
	India
3. lehentasuna	Singapur, Malaysia, Indonesia, Thailandia
	Ekialde Ertaina
	Moroko
	Japonia
	Iran
	Hego Korea

3. ERANSKINA

GASTUEN MUGA KONTZEPTU BAKOITZEKO

Kat.		Gastu-mota	Gehieneko gastu onargarria
AHOLKULARITZA ESTRATEGIKOA		Nazioartekotze estrategia	6.400 €
		Merkatu azterketa	3.200 €
		Jasangarritasun txostenak	1.500 €
ERAGIKETEN AHOLKULARITZA	Azpiegitura	Kokapen bilaketa helmugan	1.200 €
	Finantzaketa	Laguntza kanpoko bankuetan erakunde-kontuak irekitzean	800 €
	Giza Baliabideak	Giza baliabideak bilatzea eta aurre-hautaketa egitea helmugan	3.000 €
	Logistika	Arantzelen azterketak	800 €
		Banatzailleak eta/edo merkataritza agenteak bilatzea	2.000 €
	Garapen Teknologikoa	Laguntza marka eta patenteen erregistroan	1.200 €
		Laguntza homologazio eta egiaztatze prozesuan	1.200 €
	Marketina eta salmentak	Tokiko enpresen txosten komertzialak	1.200 €
		Ikerketa azoketan	1.200 €
		Agendak lantzea	1.500 €
Bazkide komertzialen bilaketa		9.000 €	
AHOLKULARITZAKOAK EZ DIREN GASTUAK		Sustapen gastuak	10.000 €
		Jabetza industrialari eta homologazioei lotutako gastuak	10.000 €
		Azokak	10.000 €
		Prospekzio bidaiak	4. eranskina
		Gonbidapen bidaiak bezero potentzialei. Gehienez 3/eskaera bakoitzeko	600 €/bidaiako